

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 208. alea - 2016ko ekaina



**Oskar Urzelai,
sukaldari debar
bat Indonesian**

GENOVEVA
Arraindegia



Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376
Bazkariak: 13:00 / 16:00
Afarik: 20:00 / 23:00

Bordatxo
JATETXEA

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

Hazirik
ZURE EKODENDA



San Roke Kalea 6, DEBA
telf.: 943 02 99 63
e-mail: hazirik@gmail.com

kutxabank
hemen
eta orain **k**

AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95



URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA



Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA
Azoka
MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

**euskarak
batzen
gaitu**
EL EUSKERA
NOS UNE

**UDAL
EUSKALTEGIAK**
euskara klaseak • clases de euskera



CURSO 15/16 IKASTURTEA

UDA IKASTAROA
IRAUPENA: 80 ORDU

Ekainaren 27tik uztailaren 22ra
(3 ordu egunean)

Irailaren 5etik 16ra
(2 ordu egunean)

PREZIOA: 123€

**Ikasle eta langabetuentzako
prezioa: 77€**

Bekatzeko sistema

MATRIKULALDIA: ekainaren 1etik 21era arte
DEBATE UDAL EUSKALTEGIA
Iifar kalea 12, behea - Tel.: 943 192 236
DEBA

AURKIBIDEA

05

KOLABORAZIOAK

Gilen Garcia,
Jose Mari Altzibar,
Yolanda Arrieta
idazlea...

08

KRONIKAK

Debako Sarek
antolatutako ekimena,
eta Antzerki Astearen
irudi-bilduma

10

ELKARRIZKETA

Oskar Urzelai
sukaldari debarrak
elkarrizketa eskaini
ditu Jakartatik

12

ALBISTEAK

Ekimen ezberdinak
Geoparkeen Astearen
baitan, Debanaturaren
udalekuak...

14

B. GAZTEA

Anorexia eta
bulimiari buruzko
hitzaldia, elkarrizketa
Ibai Salegiri, inkesta...

Ikasturtea agurtu dute mintzalagunek

Egitasmoaren ikasturte amaiera ospatzeko, ekainaren 2an pintxo-potearen aitzakian elkartu ziren herriko mintzalagunak. Azaroan abiatu zuten programa eta harrezkero bi taldetan aritu dira euskara elkarri emanez, lagun artean, astero hitzorduak egiten. Aldameneko argazkian dituzue aurreten euskahalduntzen aritu diren zenbait herritar.

Atsedean hartuko dute orain, uda partean. Baina ikasturte berriarekin batera helduko zaio berriz ere Mintzalaguna ekimenari. Bien bitartean, Zuhatza Euskara Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie egitasmoan aritu diren kide guzti-guztietan, euren borondate onak eta gogoak ondo merezita baitu errekonozimendua.



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Salburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte

Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorronsoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbietan, Mikel Aizpurua, Errima Frustratuen Kluba, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzio taldea

Publizitatea: Joseba Escudero eta Koldo Aperribai **Tlfnoa.:** 943 19 13 83

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua **Maketazioa:** Leire Rubio

Inprimategia: Euskalinpri

Tirada: 1.400 ale

Lege gordailua: SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



GILEN GARCIA

Gazteak, denbora, atzerria...

Denbora erlatiboa da, baina aldi berean aldagai gutxi dago denbora bezain objektiboa denik. Gure bizipenen ibilbidean denborak joka dezakeen papera guztiz ezberdina izan daiteke unearen arabera. Hortaz, gertakari batek gugan sorrarazi ditzakeen sentazioek norabide bat edo beste har dezakete denboraz dugun pertzepzioaren arabera. Eta alderantziz, bizipen batek gugan duen eraginagatik denboraren pertzepzioa alda liteke.

Hala ere, eta berandutzen hasi baino lehen, jorratu nahi dudana gaira egin nahiko nuke jauzi. Hiru urte beteko dira laster Irlandara etorri nintzenetik. Asmoa, ingelesa ikastea eta neure buruari kanpoan edota ezezaguna zitzaidan ingurune batean bizitza aurrera ateratzeko gai nintzela frogatzea. Hasiera-hasierako asmo edo helburu hura betetzea lortu badut ere, denborak tarteko beste kontu askorengan arreta jartzeko aukera ere eskaini dit, hain labur eta hain luze izan den esperientzia honetan.

Duela zortzi urte hasitako krisi ekonomikoak bat-batean sekulako aldaketak eragin zituen, nahiz eta une zehatz hartan ez genituen hain argi ikusten edo ez genekien aldaketa horien ibilbidea zein izango zen interpretatzen. Orain denborak eta nire bizipen pertsonalek ematen didaten ikuspuntuari esker, perspektiban begiratu diezaioket gertuagokoa den iragan horri. Nik egin bezalaxe, milaka gaztek hartu dute antzeko bidea aukera gehiagoren bila edo Inperioaren hizkuntza menderatzeko intentzioarekin. Askotan, norbanako gisa, gure erabakitze ahalmena noraino heltzen den zalantzan jartzen dut, hau da, nora arte pentsa genezake gure baitan hartutako erabakia dela kanpora irtetearena? Zergatik ematen dira tendentzia hauek modu masiboan? Zergatik dago Dublin espainolez betea? Zergatik dira nire eskolako ingeles ikasle gehienak poloniarrek eta espainiarrek?

Euskal Herrian ikasketak amaitu berri dituen gazte baten errealitatea bezain prekarioa da atzerriko esperientzia, nahiz eta

gure herria gidatzen duten mafioso handienek kontrako mezuak helarazten dizkiguten. Urkullu Vascongadetak lehendakariak eta Adegiko *Gibelaundik* azken hilabeteetan egindako adierazpenak benetan iraingarriak iruditzen zaizkit. Atzerria ezagutzea, beste kultura batzuekin topo egitea, hizkuntzak sortzen dituen mugak bizitza (euskaldunok badakigu zer den hau txikitatik...), egiteko modu guztiz ezberdina duten pertsonekin elkartzea, zure "jendea" beste herri batean identifikatzeko gaitasuna garatzea... Hauek guztiak luzera ertain-handiko esperientzietako alde azpimarragarri positiboak lirateke, baina ondo dakigun bezala eguneroko bizitza ez da horrelako kontuetan oinarritzen. Belfasten ezagutu ditudan kataluniar, euskaldun eta oro har immigrante gehienek lanpostu edo

bizimodu prekarioak dituzte. Nik ez ditut inon topatzen Adegiko lehendakariak aipatzen dituen bizitza oso erosoak duten gazte horiek. Ezagutzen ditudan immigrante gehienek beren ikasketak eta abarrak eginak dituzte; lan merkatuak ez du eskaintza handirik beraientzat, baina errealitate hau ni neu bizi naizen langile auzoko bizilagunek ere pairatzen dute. Hortaz, berriro ere klase gatazkaren baitan kokatzen den kontua dela dirudi, hain sinplea da errealitatea batzuetan...

Nire Irlandako esperientzia amaierara heltzen ari da. Ingeleseko azterketa egin, laneko kontu guztiak itxi eta ezagutu ditudan eta hainbeste lagundu nauten horiei guztiei eskerrak ematea geratzen zait orain. Aipatzen ditudan horiek

guztiak ez dira patronaleko kide, barrikadaren beste aldeko lagunak baizik. Gazteok, emakumeok, langileok alternatibak diseinatu eta martxan jartzeko gaitasuna erakutsi behar dugu, mundu mailako globalidadetik gure auzoko txikitasunera. Munduaren joera globalizaziorantz doan honetan, gure bizitzaren alor oinarritzkoenetan eraiki behar ditugu alternatibak. Ez dugu kanpoan topatuko gure baitan ez dugun hori.



Herriko mendi bideak



Orain dela egun gutxi bukatu dute gure inguruko mendiko bide garrantzitsuenen garbiketa. Horretarako, Debako Udalak Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzarekin eta Gureak enpresaren bidez (Gizarteratzeko Enpresa), gizarteratzeko zailtasunak dituen herriko jendearen eskutik bukatu berri dute garbiketa. Burdin Kurutz mendi taldeak, bere aldetik, bide horiek markatzeko ardura hartu du bere gain.

Aipatutako Udaletxeko Gizarte Saila izugarritzko ahalegina egiten ari da gure bideak garbiak egon daitezen. Ez da erraza bide horien mantenua, Deba inguruan 60 km baino gehiago dituzten bideak garbitu baitira, eta zenbait garbiketa oso zailak dira. Bide garbiketa hau gizarteratzeko arazoak dituzten pertsonentzat oso esperientzia polita eta aberatsa izan delakoan nago. Bestalde, ez dago esan beharrik bide hauen zatirik handienak gure herri bide zaharren sarea osatzen duela. Bide hauek gure ondarearen zati garrantzitsua dira eta orain dela gutxi arte gure herriko harreman ekonomiko, sozial, erlijiosoak eta abar bertatik egiten ziren. Ez dira aspaldiko kontuak astoz baserrietatik etortzen ziren baserritarrenak. Esne, baba, arrautza, oilasko eta bestelakoak ekartzen zituzten, herrian egindako erosketekin itzultzeko. Bide hauetatik joaten ziren bailarako eskoletara, erromerietara, auzolanetara, baita beren hildakoak Itziarko Santutegira eraman ere. Poliki-poliki bide hauek bere jatorrizko erabilera galtzen joan dira. Gaur egun, bide hauek lehen mailako bideek ordezkatu dituzte, pistek. Horrela, pistak dira baserriak eta bailarak lotzen dituzten bideak. Garapen ekonomikoak beste mota bateko sarea sortu du. Garai batean idiak eta astoak egiten zituzten lanak gaur egun motorrezko ibilgailuek egiten dituzte. Ondorioz, bideak baserri beharretarako zaharkituak gelditu dira. Gaur egun esan dezakegu bide horiek, gehienak behintzat, beste erabilera batek ordezkatu dituela, mendizale-tasunak, Nordic Walkingak, ehizak, perretxiko-zaletasunak eta azken garaian mendi lasterketek ere, besteak beste.

Guk, Deban, 80 km baino gehiago dauzkagu baliza-

tuta, gaur egun garbiak eta markatuak. Horregatik, lerro hauen bitartez animatu nahi zaituztet bide hauetaz gozatzea. Eta zenbait proposamen egitera ere animatu naiz:

- Zumaia-Deba GR 121etik, hau klasiko bihurtu da.
- Zumaia-Deba Done Jakue bidetik ere beste aukera bat da, errazagoa.
- PR GI-44 Deba-Lastur (kanaletik) Murgizar-Esteixa-Garaban-Irure-Itziartik Debara.
- PR GI-46 Lastur-Abeletxe-Gaintxipia ondotik Larraskanda-Ondain-Aittola gaina-zelaitxiki-Arrate-Otzarreta-Esteixa-Lastur.
- PR GI-45 deskatalogatuta badago ere, gaur egun garbia dago. Sakoneta edo Errotaberri-(Maruko errekatik)-Usabiartza-Gaintza-Itziar-Industria gunetik Lizarreta bidera-Pagatza-Arriola Deba.

PR hauek luzeak iruditzen bazaizkigu ere, aukera ezberdinak eskaintzen dizkigute, hala nola:

- Deba Kanaletik Lasturrera eta itzuli Debara bide berdinetik edo Agerretik Txapasta Itziarrera eta Debara.
- Debatik Itziarrera (marka txuri horietatik PR GI-44tik) edo San Rokeitik Zabalera eta itzulera Arriolatik.
- Itziartik Errotaberrira eta Sakonetara (Maruko errekatik) eta itzuli.
- Deba-kanaletik-Kortaberritik-Arbil aldera hartu eta Itziarrera edo Arriolara.

-Itziar-Txapasta-Murgizar-Esteixa-Irurera, Itziarren bukatzeko. Hauek aukera gutxi batzuk besterik ez dira. Bukatzeko, esan bide hauetaz gozatzearen arrazoi nagusia bere edertasuna dela, eskaintzen diguten paraje zoragarriez gozatzea. Edozein txokotan aspaldiko aztarnak ikusteko aukera eskaintzen digute, argazkietan agertzen diren bezalakoak.

Ohar bat egitera ere ausartu naiz. Amillagatik Santa Katalinarako bidea egoera arriskutsuan dago eta, konpondu arte, bertatik ibiltzea ez da gomendagarria.

Jose Mari Altzibar

Idazle izatera jolasten Debako liburutegian **LETREN TRINTXERAK ETA GERRILLAK**



Hazi berriz estali zait autoa loreen hilabetean. Begitantzen zait ekinaren zirimolak garamatzala denok, polen-hauts, lore-pinporta, auto, auzokide eta ni neu, batetik bestera, zereginen katean estekatuta. Gauez batzuk, goizez besteak, denetariko lanordu eta txandetan antolatuta goaz, denetariko paga, pensio eta soldatekin, edo batere gabe. Honetatik bizi al zara?, galdetu dit, irribarretsu, hogeita hamar urte leku berean lanean daraman aspaldiko ikaskideak. Bai, erantzun diot. Ipuinetik bizi naiz, bere *izen-abizen* guztiekin, denetarik egiten dudalako edo egin izan dudalako: asmatu, idatzi, kontatu, kantatu, argitaratu, zabaldu, dinamizatu, itzuli, sailkatu, baloratu, saldu, azaldu, erosi, erakutsi...

Literaturaren *izen-abizenok* izendatu ahala noa diseinatzen gaurko literatura-sistemaren mapa buruan, sare bat balitz modura, datorren astean eman behar dudana hitzaldirako materiala aurreratu guran: egilea, editorea, bitartekaria, kritikaria, banatzailea, itzultzailea, irudigilea, dinamizatzailea, sare sozialak, dendak, liburu-dendak, liburutegiak, aldizkariak, prentsa, irakurleak...

Sail bakoitza osatzen hasteaz batera, lehengoan lagun bati bidali nion mezuan iltzatu zait begirada. Literaturaren panoramaz ari ginen. Egungo pertzepzioaz. Azaltzen nion Gerrilla eta Trintxera aipatzean, Literaturaren iraunkortasunaz ari nintzela, ez heriotzaz. Esaten nion badoan mundu baten parte eta datorren beste baten testigu naizelarik, bor-bor sumatzen ditudala hitzak nire barruan, eta inguruan ikusten dudana gauza askok ez nauela asetzen. Bizitzeko ohiturak aldatu egin direla erantzen nion, estimulu bizkorrez inguratuta gaudela, baina, hala ere, niretzat, hitzak baduela,

oraindik, liluratzeko ahalmena. Dena den, zehazten nion, literatura eta liburuak, berez, ezer gutxi direla: pertsonok garelako bizia ematen diegunak. Beraz, idatziak paperetik haratago defendatzen ditudala nik, modu lagungarriak asmatuz. Modak, joerak eta merkatuak ez gaituela guztiok une guztietan asetzen. Honenbestez, literatura, bere neurri txikian, aukera bat izan daitekeela dezepzioa modu ederrez izendatu eta uneko aldartea mudatzeko, baina, "aukera" horrek eremu eroso eta orokorra uztea eskatzen duela, "zer nahi dut?" galdetzea, eta bila ekitea, bidea ikasgai bilakatuta.

Sareak zuloak dituela baieztatzen nion; sistemak huts egiten duela, zer esanik ez, baina nik neuk, sistema-sareko zati nano bezain baliagarri naizen aldetik, nahiko argi dudala nola jokatu: bideari adi, joerei so eta hutsuneetatik gertu, kexen ajetik urrun, purrusten putzari gor.

Amaitzeko, komentatzen nion, pertsonen aldean, gauzak ez direla "berez" hiltzen; guk geuk erabakitzen dugula noiz hil diren. Beraz, literaturari bizia ematen diodan bitartean, niretzat bizirik dagoela; eta, hain zuzen ere, "bizia emate hori" deitzen dudala nik, arruntasunik babestea, hots, Trintxera; eta liburu hitz-bizi bilakatzea, alegia, Gerrilla. Hau guztia gudarik gabeko borrokan, jakina.

Aurten ere idazle izatera jolastu dugu liburuaren Debako etxean, hots, liburutegian.

Eta bizirik sentitu gara, bai LH-4ko ikasleak, bai irakasleak, bai liburuzainak, bai liburuak, bai liburutegia eta baita ni neu ere. Bizirik eta pozik.

Mila esker, letrak zaintzen laguntzeagatik.

Yolanda Arrieta



Giza eskubideen tren



Deban ere bagoi bat erantsi diogu Euskal Herrian zehar saretzen ari garen GIZA ESKUBIDEEN TRENAri.

Beste behin ere, euskal preso, iheslari eta deportatuen giza eskubideak defendatuz irten gara kalera. Oraingo honetan herriko artisauekin eta artistekin batera aldarrikatu ditugu beraien eskubideak Espainiako eta Frantziako gobernuei zera eskatuz:

- Dispertsio politikaren amaiera.
- Gaixo dauden presoek askatasuna
- 70 urtetik gorakoek eta kondena-
ren 2/3ak bete dituztenen kaleratzea.
- Iheslari eta deportatuak euren esku-
bideen jabe izatea; besteak beste, osasu-
na, lanpostu duina, edota eskubide zibil

eta politikoak, hauen Euskal Herriratzea ahalbidetuz.

-Euskal presoek aplikatzen zaizkien salbuespen legeen amaiera.

Urrats hauek gatazkaren konponbidea emateko ezinbestekoak direla uste dugu, elkarbizitzan oinarrituko den bake eszenatoki bat bideratu ahal izateko.

Honegatik guztiarengatik ozen eta argi esaten dugu:

GALARRAGA Euskal Herrira. Giza eskubideen urraketarik ez gure izenean. Gure izenean, EZ.

Debako Sare



Uzuri
optika audio
www.uzurioptika.com

**ZURE ENTZUMENA
ZAITZEN**



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS: 183/12

XXX. ANTZERKI ASTEA, IRUDITAN

Mila esker antzerkizale guztioi!



"Izan ala ez izan".
Zurriolako Antzerki Eskola



Luis Mari Gogoan. *"Ortzmuga".*
Goaz Antzerki Taldea



"Ongi etorri FindeMundo!".
Trapu Zaharrak




"Txanogorritxo".
Aizarnako Eskola Antzerkia



"Zapoi, hil arte edan!".
Karrika Taldea



"Heroiak".
Txalo Antzerki Taldea



"Tomaxen Abenturak: Festara!".
Zurriolako Antzerki Taldea

MAXI BAR


Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

OSKAR URZELAI

“Beti eduki dut garbi sukaldaria izango nintzela eta oso pozik bizi naiz Jakartan”



Urte asko daramatza Oskar Urzelai sukaldaria Debatik kanpo. Gaur egun Jakartan bizi da, Indonesiako hiriburuan, eta bertan Plan B izeneko jatetxe bat dauka, beste bi bazkiderekin batera. Sukaldari lanetan 27 bat urte egin ditu dagoeneko, eta horietako hogeiei eman ditu munduan barrena, bidaiatzea ere maite duen seinala. Sukalde kontuak, Indonesian duen bizimodua, aurrera begirako asmoak... atsegin handiz aritu gara berarekin *Berriketan*.

Zelan bukatu du Debako sukaldari batek Jakartan?

Melia Hotel konpainiak deitu zidan Tailandian lanean nengoela, 2010. urtean. Asiako hego-ekialdean hamalau urte daramatzat.

Urte batzuk daramatzazu sukaldari lanetan ere. Zenbat zehazki? Noiz hasi zinen sukaldaritzan?

Orain dela 27 urte hasi nintzen eta horietako 20 daramatzat munduan zehar. 1989an hasi nintzen sukaldari bezala.

Zein momentutan erabaki zenuen sukaldari izan nahi zenuela? Argi izan duzu beti?

Bai, beti eduki dut garbi sukaldaria izango nintzela. Nire ama ere sukaldari bikaina eta trebea da. Gogoratzen dut txikitatik Txurreriako sukaldean, goiko komedorean, ibiltzen nintzela eta hango zarata, usaina... oraindik ere gogoratu egiten ditut.

Honekin lotutako formaziorik jaso zenuen?

Martin Berasategiren eskutik hasi nintzen. Nire aita da sukaldaritzaren arloan; urtero joaten naiz bere jatetxera, teknika eta tententzia berriak ikastera, eta erlazio handia daukat berarekin.

“Esango nuke sukaldaritza informal bat egiten dudala, munduan zehar ikasitakoaren kutsuekin eta autore berrikuntzekin nahastuta”

Zure ibilbideko erreferentzia batzuk ematearren: aipatu berri duzun Martin Berasategirekin egin zenuen lan Donostian eta Madrileko Zalacain jate-

txean ere aritu zinen. Sevillako Egaña Oriza jatetxe ezagunetik ere pasa zinen gero... Oroitzapen politak gordetzen dituzu? Orduan ikasitakoa zurekin daramazu?

Bai, oroitzapen ugari dut eta jatetxe horietan ikasitakoa beti daramat nirekin. Aipatu nahi dut Maximo Azkue –“Bordatxo Jatetxea”- ere, erreferentzia handiko beste gizon bat izan baitzen niretzako.

Hitz gutxitan esanda, horrela laburbilduko nituzke nik:

Martin Berasategi=apaltasuna eta iraunkortasuna; Zalacain=bikaintasuna; Egaña Oriza=tradizioa eta bilakaera; Bordatxo=zintzotasuna.

Nola definituko zenuke zure sukaldaritza, Oskar?

Esango nuke sukaldaritza informal bat dela, munduan zehar ikasitakoaren kutsuekin eta autore berrikuntzekin nahastuta.

Zein da zure espezialitatea?

Arrainak eta postreak sukaldean, bezero guztiei tratu pertsonala ematea komedorean eta orokorrean, eta niretzako garrantzitsua dena, "Team Work"-a (talde lana).



Jatetxearen webgunean (www.planbjakarta.com) irakurri dugu hiru ezaugarri nagusi dituela zuen jatetxeak, hiru kontzeptu nagusi dituela oinarrian... zeintzuk dira?

1.- Plateraren kalitatea, eta prezio onean

Martxa' jartzen dut. Jendeak saltoka amaitzen du eta malko txiki batek ihes egiten du, Debatik 12.000 km-ra baitaude.

Zer moduz bizi zara zu Jakartan? Gustura? Denbora asko daramazu bertan?



Sukaldaritzaz gain, bidaiatzea ere gustuko duzula dirudi. Kuba, Dominikar Errepublika, Singapur, Egipto, Kanbodia, Tailandia... bidaiak egitea zure pasioetako bat al da?

Bai, beti maite izan dut bidaiatzea: kultura, gastronomia, bizimodua, erlijioa... munduko beste pertsonak nola bizi diren ikustea, eta baita beraiek dauzkaten balio desberdinetatik ikustea ere, nire bizitza pertsonalki eta profesionalki hobetzeko.

Turismo gastronomikoa egitea gustuko duzu?

Bai horixe! Eta asko, gainera! Nire lanbiderako gauza berriak ikusi, dastatu, teknika desberdinak ezagutu... Denetarik probatu izan dut gainera, barazki eta fruitu exotiko ugari, baita gauza bitxienak ere (sugeak, labezomorroak, matxinsaltoak, krokodiloa, txakurra eta abar).

Bi hitzetan edo labur-labur, zer eskaintzen du Plan B jatetxeak?

Maitasun handiz egindako sukalde bat. Beti saiatzen gara gure bezeroei merkatuan dauden lehengairik onenak eskaintzen, baita etxean bezala sentiarazten ere.

2.- Zerbitzu pertsonalizatua
3.- Elikadura esperientzia berri bat

Jatetxean hiru bazkide zarete, ezta?

Bai, hiru gara: ondarrutarra da bat, Cuencakoa bestea eta ni neu.

Mila detaile ezberdin egon daitezke. Baina, zure ustez, zertan bereizten dira indonesiar jatetxe bat eta euskal jatetxe bat?

Ezberdintasuna oso handia da. Lehenbizi, hemen janaria oso pikantea da, "Sambal" izeneko saltsa erabiltzen dute eta 25 saltsa ezberdin dituzte. Beraien oinarritzko janaria arroz da, Indonesiako gastronomia arrozaren inguruan eginda dago. Egia esan, janari osasuntsua da, fruitu eta barazki ugari erabiltzen baitituzte.

Harrera ona egin diote indonesiarrek zuen eskaintzari?

Egia esan bai, kritika oso onak jaso ditugu eta horrek aurrera begiratzen eta egunez egun hobetzen animatzen zaitu.

Debarrak joan al zaizkizu bisitan?

Bai, noski. Ohitura bat daukat, gainera: debar bat Plan B-ra heltzean, "Debako

Oso pozik bizi naiz Jakartan, hiri oso handia baita. Hemen 22 milioi pertsona bizi gara, Gipuzkoako lurraldearen gisakoa edo berdina da. Sei urte daramatzat hemen bizitzen.

Bertan luzaroan gelditzeko plana daukazu, ala laster ikusiko zaitugu herrian bueltan?

Proiektu berriekin nabil eta uste dut luzerako egongo naizela hemen. Dena den, udan beti joaten naiz Debara oporretan, eta San Rokeak hartzen badituzte hobe.

Zelakoa da Indonesiako bizimodua egunerokoan?

Lehen esan dizudan moduan, oso hiri handia da eta txarrena trafikoa dugu. Bestalde, hemen eguraldi oso ona egiten du urte osoan, 25-30 gradu.

Elkarrizketarekin amaitzeko, beste zer-bait gehituko nahiko zenuke, Oskar?

Edozein debar Jakarta aldera badator, hemen etxea eta jatetxe bat duela gogoratu... GORA DEBA, GORA SAN ROKE!!!!

Proiekzioak, marrazki lehiaketa, irteera gidatuak... Europako Geoparkeen Asteak eman du berea



Ekimen ugari burutu dira aurtien ere Geoparkeen Astearen baitan -Deban, Zumaian eta Mutrikun- eta Euskal Kostaldeko Geoparkeko kideak pozik daude herritarren aldetik jasotako erantzunarekin, hitzorduetan jende ugari parte hartu duela nabarmenduta. Ekimenaren seigarren edizioa izan da aurtengoa eta "Geoparkeko baleazaleak" goiburupean burutu da egitaraua.

"Euskal Baleazaleen Triskantza" dokumentalaren proiektioarekin abiatu ziren ekimenak, maiatzaren 23an. Eta haurrek ere izan dute euren protagonismoa aurtengo edizioan. Horren erakusle da "Balearen bila" marrazki lehiaketak izan duen arrakasta: guztira 900 lan aurkeztu dira. Balea ardatz hartuta, haurren artean balearen eta, oro har, beste espezie bizidunen ezagutza eta sentsibilizazioa sustatzea du helburu lehiaketa horrek, eta Geoparkeko hiru herrietako lehen

hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago. Adinaren arabera hiru kategoriatan ezarri dira lehiaketan, eta kategoriatan bakoitzeko saridun bat aukeratu da. Irabazleen artean dago Luzaro eskolako Mikel Gonzalez, LH3 eta LH4ko ikasleei dagokien sailan. Sariak Agirre Jauregian banatu ziren, maiatzaren 27an. Egun berean, zetazeoei buruzko tailerra eskaini zuen Aquariumak jauregian bertan.

Maiatzaren 28an, Mendatako talaiara ibilaldia egin zuten 40 bat lagunek Suhar Arkeologiako kideekin. Geoparkeko hiru herrietan baleazaleen aztarna gehienak aspaldi desagertu baziren ere, Mendatan talaia baten arrastoak aurki ditzakegu. Aipatutako irteeran, hain zuzen ere, Itziarko Itxaspe kanpinetik abiatuta, eta eguraldia lagun, bisitariak oinez abiatu ziren garai bateko balearen arrantzarekin lotura duen talaia horretaraino. Bertan, Ander Arrese arkeologoak

talaian egindako indusketaren emaitzak azaldu zituen. Itxaspeko kanpinera itzuli eta hamaiketako batekin eman zitzaion amaiera ekimenari.

Arratsaldean, Zumaian, Kepa Junkera eta Sorginak taldeko kideek (tartean Alaitz Eskudero debarra ere bada) "Marea Zumaian" abesti berria eta flyscean grabatutako bideoklipa aurkeztu zuten.

Aurtengo egitarauarekin amaitzeko, hilaren 29an Geoparkearen Interpretazio gune berria inauguratu zen Lasturren, bertako aterpetxean. 45 bat lagun elkartu ziren bertan. Gune berria ikusi eta, jarraian, Hector Fano geologoaren eskutik, bisita geo-kultural interesgarria egiteko aukera izan zuten bertaratutakoek. Lasturko haranak dituen ezaugarri geologikoez eta Lasturko harriaren garrantziaz aritu zen Fano, herritarrek adi-adi zituen bitartean.

Antton Aizpuruak eta Aitor Salegik jantzi dute txapela Plazatik Gaztetxera lehiaketan

Mutrikun jokatu zen XV. Plazatik Gaztetxera txapelketaren finala joan den maiatzaren 21ean, Plazatik Gaztetxera Egunean, eta Antton Aizpuruak debarrek eta Aitor Salegik osatutako bikoteak jantzi zuen txapela. Beste hiru bikoteek ere parte hartu zuten finalean -tartean Maddi Sarasuak eta Manex

Astigarragak osatutakoak-, eta buruz burukoa Eli Pagola eta Iñigo Zubiaurre "Beitxi"-rekin jokatu lortu zuten garaipena aurtengo ediziooko irabazleek.

Apirilaren 15ean Eibarren abiatu zen txapelketan, guztira, 64 bertsolari aritu dira lehian.

Garazi Garridok irabazi du Elkar argitaletxeak Euskal Herri mailan antolatzen duen ipuin lehiaketa

"Amaierarik gabeko ametsak" izenburua duen lanarekin eskratu du Garazi Garrido gaztetxoak, Elkarrek urtero antolatzen duen ilustrazio eta ipuin lehiaketan, ipuinari dagokion lehen saria.

Elkar Ilustrazio eta Ipuin lehiaketak haurren eta gazteen artean irakurzaletasuna eta sormena bultzatzea du helburu. Horretarako hiru modalitate antolatu dira, haur eta gazteen adi-

naren arabera: ipuina ilustratu (HH 4 eta 5 eta txikiagoak, LH1, 2, 3 eta 4), ilustrazioa ipuin bilakatu (LH 5 eta 6, DBH 1 eta 2) eta komikia edo bineta sortu (DBH 3 eta 4). Garazi Garridok ilustrazioa ipuin bilakatzen duen modalitatean parte hartu zuen. Bertan, Martintxo Altzuetak egindako ilustrazioarekin ipuin original bat osatu behar izan zuen (interneten duzue irakurgai).

Azken Borondateak eta Heriotza Duina

Maiatzaren 27an, Arbil Elkarteak Azken Borondateei buruzko hitzaldia antolatu zuen.

Aurretiazko Borondateak, osasunari dagozkion erabakietan herritarren hausnarketa eta parte-hartzearen prozesu baikorra bezala ulertzen dira.

Bere oinarria onarpen informatuan datza, medikuntzaren praktika onaren adierazgarri. Informazio egokiaren ondoren, pertsona gaixoaren borondatea onartzen du.

Hau Osakidetzako Aurretiazko Borondateen dokumentuaren sarrera izanik, gaian aditua den Iñaki Olaizolaren hitzaldia puntu hauetan oinarritu zen:

a) Azken 50 urtean eman diren gizarte aldaketak, etxean hil eta Jaungoikoaren eskutan gaudela pentsatzetik pertsona autonomoak garela pentsatzera, eta Aurretiazko Borondateak Legalki erregistratuz gero gure egunen amaiera aurretiaz eta amaiera fasean erabaki dezakegu.

b) Bizi esperantzaren luzapenak eta honek dakarren menpekotasun egoeratik sendiarentzat gainkarga ez izatea gailentzen da adineko pertsonengan.

d) Amaiera minik gabe bizi nahi dugu. Amaiera fasean, konorterik gabe geratzean edo min menperaezina dugunean ere, ez dugu nahi bizia luzatzeko neurri sendagarririk.

Hitzaldira hurbildutako pertsona batzuek, beraien testigantzekin, solasaldia aberastu zuten.



Aurretiazko Borondateak askatasun eta kontzientzia osoz erabaki eta sinatzen dira, beti ere lekukoaren aurrean.

Honekin, bizitza berreskura ezina denean, min menperaezinarekin edo konorte gabeko fasean sartzean artifizialki bizia luzatzea ekidin nahi da, amaiera fasean. Sendiari ere erabaki honen ardura ekiditen zaio, desberdintasunak izan baitaitezke erabakitzerakoan.

Bizi Testamentua interneten aurki daiteke "Azken Borondateak Osakidetzat" web orrian edo Gasteizko telefono zenbaki honetan: 945-019254.

Arbil Elkarte

Udaleku irekiak eta multiabentura kanpamentuak, Debanaturaren eskutik

Debanatura elkarteak udaleku irekiak egingo ditu aurten ere Deban, ekainaren 27tik uztailaren 29ra bitartean. Lau eta bederatzi urte bitarteko haurrei zuzenduta dago eskaintza, eta astebeteko, bi asteko, hiruko edota hilabete osoko txandetan parte hartzeko aukera izango dute.

Ingurumen heziketako jarduerak burutuko dituzte, baita sormenari edo aisialdiari dagozkienak ere. Ekimen batzuk aire librean egingo dira (txangoak Debako ingurune naturalera, baratzerak...), eta beste batzuk Kultur Elkarteko Gela Berdean burutuko dituzte haurrek, hala nola eskulanak, buztin tailerra, espresio artistikoa, zientzia eta natur txokoa, esperimentuak edo jolas kooperatiboak. Dinamika ezberdinak burutu ahal izateko, haurrak bi adin tarteren arabera egongo dira banatuta (4-6 urte eta 7-9 urte). Aipatutako jardueraz gain, haur nagusien taldeak bestelako ekimen batzuk ere burutuko ditu: Kobazulo Txiki irteera, *wild natura*, txangoak bizikletaz...

Izena emateko edo informazio gehiagorako, jarri harremanetan Debanatura elkartearekin: 943 19 11 72/695 783 656/ debanatura@hotmail.com.



Bestetik, Euskal Kostaldeko Geoparkean Flyscharen Udalekuak-Multiabentura kanpamentuak ere antolatu ditu Debanaturak, Lasturko Aterpetxearekin elkarlanean, 9 eta 15 urte bitarteko gazteentzat (bi adin tartetan banatuta: 9-11 eta 12-15). Udaleku itxiak Deban eta Lasturko aterpetxean egingo dira, ekainaren 26tik abuztuaren 6ra (zazpi eguneko txandetan), eta multiabentura, aisialdi eta heziketa jarduerak izango ditu oinarrian, betiere naturarekin harremanetan: hondartza, flyscharen ibilbidea, surf, espeleologia, eskalada, uztai-jaurtiketa... Informazio gehiagorako: Debanatura elkarte edo Lasturko Aterpetxea (www.es.albergueturisticolastur.es).

2016ko ekaina
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua

BERRIKETAN GAZTEA

Anorexia eta bulimiari buruzko hitzaldia

Maiatzaren 5ean, Mendata institutu-ko 4. mailako ikasleek anorexiari eta bulimiari buruzko hitzaldi bat izan zuten, Bittori Bravo psikiatraren eskutik. Bittori Bravok Medikuntza ikasi zuen Euskal Herrian, eta Psikiatria Parisen.

Landutako gaien harira:

- Anorexiari buruz hitz egin zuen eta bulimia eta bere ezaugarriak azaletik azaldu zituen. Aipatu zuenaren arabera, anorexiaren ezaugarriak honako hauek dira: gorputz-itxuraz gehiegi kezkatuta egotea eta argaltzen gogo gehiegi jartzea.
- Elikabideari dagozkion arazoak, anorexia eta bulimia bereziki, gizakiaren historia osoan zehar agertu badira ere, gaur egun ohikoagoak bihurtu direla azaldu zuen, egungo edertasun-ereduak gero eta gorputz lirainagoa ezartzen duelako. Halako arazoek ondorio larriak dituzte



eta askoz ere eragin handiagoa dute emakumeengan gizonezkoengan baino (%90 eta %10 inguru, hurrenez hurren). Bai anorexia bai bulimia bera ere egunetik egunera pertsona gazteagoetan (emakumezkoetan nahiz gizonezkoetan) agertzen direla esan zuen.

- Familia eta gurasoen jokaerari

buruz ere aritu zen: gaixotasun hauek sendatzeko oso garrantzitsua da gaixotasunaz garaiz jabetzea, eta susmoren bat izanez gero, medikuarengana jo behar da. Sendabidea luzea denez, aditu oso espezializatuen laguntza behar da eta babes osoa familia eta inguruko pertsonen aldetik. Hau da, ezinbestekoa da familiaren berotasuna eta aholkularitza gaixoa sendatzeko prozesuan.

Hitzaldia amaitzean, ikasleek eta irakasleek euren zalantzak argitzeko aukera izan zuten.

Debako historia, bere elizaren bidez

Maiatzaren 20an, institutuko 3. DBHko ikasleek Debako historiari buruzko hitzaldi bat izan zuten "Deba: Ibilaldi bat gure historian zehar" liburua idatzi zuen Alex Turrillasen eskutik, Santa Maria elizan.

Lehenik, fatxadaren aurrean eraikinari buruzko ezaugarri batzuk azaldu zituen Turrillasek, eraikinak duen garrantzia eta eraiki zen urtea, hain zuzen ere. Ondoren, barruan, elizako kaperak bakoitzari buruzko



informazioa eman zuen: horiek garai hartako nobleek eraiki zituzten eta kaperak bakoitza familia noble bati

zuegokion.

Kaperak bisitatu eta gero, klaustrora joan ziren; bertan, arkitektura-ezaugarriak aztertu zituzten. Zenbait bitxikeria/anedota azaldu ostean, bisitaldia elizako sakristia barrokoan amaitu zen. Sakristia elizan egin zen azken arkitektura-lan garrantzitsuena izan zen.

Turrillasek azken azalpenak eman ostean, ikasle eta irakasleek hainbat galdera egin zizkieten.



ELKARRIZKETA

Ibai Salegi:

"Gustura sentitzen naiz, gustatzen zaidan kirol bat egiten dudalako"

Oraingo honetan, Mendata Institutuko 3.mailako Ibai Salegi ikasleari egin diogu elkarrizketa. Berak gustuko duen kirola (pilota) hartu dugu hizpide, eta bere ibilbideari buruzko galderak egin dizkiogu.

Noiz hasi zinen pilotan jokatzeko?

Bost urterekin hasi nintzen pilotan jokatzeko, Itziaroko pilotalekuan.

Zenbat entrenamendu izaten dituzu astean?

Bi alditan entrenatzen naiz astean, bi ordu eta erdi egunean.

Zein izan da zure garaipenik handiena?

Txapelketa asko irabazi ditut, baina, nire ustez, garrantzitsuenak Añorgako, Adunako eta Azpeitiko txapelketak izan dira.

Gustura sentitzen al zara pilotan jokatzeko?

Bai, gustura sentitzen naiz, gustatzen zaidan kirol bat egiten dudalako.

Non lortu zenuen azken garaipena?

Nire azken garaipena Lesakako Sarian lortu nuen.

Binaka ala banaka jokatzeko duzu?

Normalean banaka zein binaka aritzen naiz, baina gehienetan binaka. Julen eta Urtzirekin jokatzeko dut.

Nora joaten zara jokatzeko?

Leku askotara, baina batzuetan urrutira joan behar izaten naiz txapelketa batera joateko.

Nora joan zara urrutien?

Nafarroara eta Gasteizera.

Lehenengo txapelketa non izan zenuen?

Itziarren. Nire lagunaren aurka jokatu nuen.

AZKEN URTEA MENDATAN

Oraingo honetan, 4.DBHko ikasleei inkesta egitea pentsatu dugu. Aurtengo ikasurteaz azkena izango denez eurentzat, honako galdera hauek egin dizkiegu:

- 1.- Zure ustez, nolakoak izan dira lau urte hauek institutuan?
- 2.- Esperientzia ona izan da?
- 3.- Zein izan da gehien gustatu zaizun arloa?
- 4.- Eta gutxien gustatu zaizuna?
- 5.- Lau urte hauetan, aldaketaren bat izan duzu zure bizitzan?
- 6.- Pozik al zaude institututik joateko?
- 7.- Batxilergora joateko asmoa al duzu?
- 8.- Arazorik eduki al duzu institutuan?



**Nikolas
Egaña**

- 1.- Nire ustez, txarrak izan dira urte hauek.
- 2.- Ez dut esperientzia onik izan.
- 3.- Teknologia.
- 4.- Mate izan da gutxien gustatu zaidan arloa.
- 5.- Ez.
- 6.- Bai, gogo handia dut.
- 7.- Bai, asmoa dut.
- 8.- Bai, asko izan ditut.



**Joseba
Beitia**

- 1.- Nire ustez, oso onak izan dira.
- 2.- Bai.
- 3.- Heziketa Fisikoa.
- 4.- Herritartasuna .
- 5.- Ez.
- 6.- Bai, gogo handia dut.
- 7.- Bai, asmoa dut.
- 8.- Ez.



**Eddy
Gherghe**

- 1.- Oso onak izan dira.
- 2.- Bai, esperientzia ona izan da.
- 3.- Gorputz Hezkuntza.
- 4.- Fisika-kimika.
- 5.- Ez.
- 6.- Poz-pozik.
- 7.- Ez dut pentsatu.
- 8.- Bakar bat ere ez.



Sara Lili

- 1.- Oso azkar pasatu dira.
- 2.- Bai.
- 3.- Plastika.
- 4.- Natur.
- 5.- Ez.
- 6.- Bai, oso pozik.
- 7.- Bai, asmoa daukat.
- 8.- Ez, ez dut arazorik eduki.



**Ainhoa
Agirregomezkorta**

- 1.- Azkar pasatu dira.
- 2.- Bai.
- 3.- Bio-Geo.
- 4.- Euskara.
- 5.- Ez.
- 6.- Bai, oso pozik.
- 7.- Bai, asmoa dut.
- 8.- Ez dut arazorik eduki.



**Ibai Perez de
Albeniz**

- 1.- Oso gustura eta azkar pasatu dira.
- 2.- Bai.
- 3.- Teknologia.
- 4.- Gaztelania.
- 5.- Ez.
- 6.- Bai, oso pozik.
- 7.- Bai, asmoa dut.
- 8.- Ez bereziki.

DENBORA-PASAK

HIEROGLIFIKOAK

1) Nola dago arbola?



2) Printzipio filosofikoa: lehenbizi...



3) Zerk eramango gaitu urrutira?



1) Nor da neska hori?



ASMAKIZUNAK

*Uniformedun gudaria zuri eta gorriak, gerra ostean, ordea, buru beltza eta erreak. Zer da?

*Bi ama eta bi alaba, ondo zenbatzen baduzu, ez dira lau, hiru baizik. Zeintzuk dira?

HIZKI-ZOPA

Aurki itzazu irudi hauei dagozkien hitzak. Ondo gogoan hartu norabide guztietan aurki daitezkeela.

E	K	A	I	R	U	B	E	O
S	U	A	O	D	A	A	I	L
H	A	T	Z	R	R	H	G	S
I	A	B	A	E	C	E	D	O
S	E	T	B	C	T	U	Z	N
O	Z	P	O	S	T	A	R	I
E	B	N	R	L	I	O	R	K
J	I	M	A	N	I	K	Z	I
P	A	T	A	L	I	P	O	Z

ERANTZUNAK:

a) Asmakizunak: 1.-Foxpoloa, 2.-Bizi, 3.-Bidea, 4.-Ane ama eta alaba

b) Hieroglifikoak: 1.-Tente, 2.-Bizi, 3.-Bidea, 4.-Ane

laguntzaileak:



babesleak:



Debako Udala



prentsa tailerra 2015-2016

Ane Amutxastegi
Elene Arratibel
Ane Ladera
Lara Egaña
Haritz Alberdi
Julen Ayastuy

Jon Muñoz
Naia Zabala
Ane Larrañaga
Iraide Udabe
Idrissa Sene
Jon Osa

Koordinatzailea: Tomas Ramos

AGENDA

EKAINAK 22, ASTEAZKENA

-20:30. **Ipuin kontaketa:** Patxi Zubizarreta idazlearen "Atxiki sekretua-Sorginaren eskuliburua" lanetik abiatuta, kontakizuna egingo du Amaia Zinkunegik, Itziarren.

EKAINAK 23, OSTEGUNA

-22:00. **San Juan Bezpera**, Deban eta Itziarren.

EKAINAK 24, OSTIRALA

-11:00. **San Juan eguna**, Santa Katalinan.

-19:00. **Kalez Kale txistulari taldea**, kaleetan zehar.

-19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.

-20:00. **Kontzertua:** "Doinuekin jolasten", Santa Maria elizako klaustroan.

EKAINAK 25, LARUNBATA

-10:00. **Ekolingua**. Euskararen inguruan, hizkuntza-aniztasunaren inguruan, hizkuntza-esperientzien inguruan solas eta jolas egiteko aukera... Plaza zaharrean.

-**Bidezko merkataritzako denda**, udaletxe-ko arkupeetan.

EKAINAK 26, IGANDEA

-10:00. **Nordic Walking**, hastapen ikastaroa. (andoni@ekinkirola.com - 645 71 40 62).

-**Bidezko merkataritzako denda**, udaletxe-ko arkupeetan.

EKAINAK 28, ASTEARTEA

-22:00. **San Pedro bezpera**. Zahagi erretzea, plaza zaharrean.

UZTAILAK 2, LARUNBATA

-**Azoka Txiki solidarioa** (liburuak eta musika), udaletxe azpian.

-**VIII. Deba Orbea Xtreme Triatloia**.

UZTAILAK 3, IGANDEA

-**Azoka Txiki solidarioa**.

-**IX. Debako Itxasmila igeri zeharkaldia**.

UZTAILAK 7-10

-**Gastronomia eta artisautza azoka**, zumardian.

UZTAILAK 9, LARUNBATA

-**Organo kontzertua:** José Luis Echechipia. Santa Maria elizan.

Haurrentzako ikuskizuna

Urtero bezala, "Udara Kulturaz Blai!" lelopean, Zuhatza Euskara Elkarteak haurrentzako ekimen ezberdinak antolatuko ditu uda partean. Lehenbiziko hitzordua uztailaren 5ean (asteartea) izango da, arratsaldeko 19:00etan, zumardian. Puski eta Txurruski pailazokak izango dira gonbidatuak, "Elkarrekin des-jolasten" ikuskizunarekin.



Udako ordutegia liburutegian

Ekainaren 27tik aurrera (astelehena), Ostolaza Udal Liburutegiak udako ordutegia izango du.

*Liburutegi orokorra: astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara izango da zabalik. Haur liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte.



SUKIA
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)




urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Nº: 379

Higiezin zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlo.net



RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com



haizea
estetika

Tlf. 943 029 607
Isturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **ekainak 24, 25, 26.**
uztailak 4, 5, 6, 7.

Burgoa Zuazo: **ekainak 20, 21, 22, 23.**
uztailak 8, 9, 10, 18, 19, 20, 21.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Torbio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: ekainak 25 / uztailak 2 eta 23

BURGOA ZUAZO: uztailak 9 eta 16

9:30 - 13:30



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



MARIJE CASTRO IRIBARREN

- Masaje terapeutikoak
- Kiroletako masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Manipulazio bixnatarra

MASAJISTA

25 URTEKO ESPERIENTZIA

Tel.: 677 557 615

DEBA

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak



Mobila: 699 975 206
Tel./faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A
D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTARLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Natarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatzza
Muzika

943 191 383
berriketan@zuhatzza.com



G



JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

English Academy

NORTH STREET ENGLISH

Telf. 675 714 031 - Iifar kale, 15 - Deba
rhorton4@yahoo.es

Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

ZUEI ESKER

urtero gehiago garelako,
ESKERRIK ASKO!



Gurasoentzat bilera:

Uztailak 1, ostirala arratsaldeko 17:30ean Itziarren (Apaiz etxean)
eta 19:00etan Deban (Udaletxeko areto nagusian)

